




Europako Inbertsio Bankuaren zeregina ekonomia jasangarrirako trantsizioan



EIBtik Europako Klima Bankurako trantsizioan ikasitakoari buruzko elkarriketa

Mai. 30 2024

Kod. W08-24

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Jarduera irekia

Data

Mai. 30 2024

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Gaztelera

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Europako Batzordeak 2019. urtearen amaieran onartutako Itun Berdeari erantzunez, Europako Inbertsio Bankuaren Administrazio Kontseiluak erakundea Europako Klima Banku bihurtzeko erabakia hartu zuen. Ordutik aurrera, eraldaketa sakona hasi zen, Europar Batasunean eta Europar Batasunetik kanpo trantsizio ekologikoa finantzarioki laguntzeko, eta eraldaketa horrek finantza-sistema nola bilakatzen ari den islatzen du. Europako Itun Berdea krisi klimatikoari aurre egiteko eta Europar Batasuna 2050erako neutraltasun klimatikora bideratzeko diseinatutako ekimen politikoen multzoa da, eta berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko helburu espezifikoak ditu —helburu horiek energia, garraioa, fiskalitatea, klima-aldaketara egokitzea eta halako eremuak barne hartzen dituzte.

Esther Badiolak, Europako Inbertsio Bankuaren (EIB) Eragiketetako Klima Aldaketaren Bulegoko aholkulari nagusiak, hitzaldia eskainiko du **Donostia Sustainability Forumen baitan 2030erako Euskadiko Ingurumen Esparru Programari** atxikirik antolaturiko saioan

Helburuak

Hitzaldian, EIBk eraldaketa horretan jarraitu duen bidea zehaztuko da, baita zer ekarri duen ere, finantzaketa jasangarriaren arloko praktika eta prozesu berriei dagokienez. Hori guztia EIBko **Klima Bankuaren ibilbide-orrian** jasotzen da. Bertan, krisi klimatikoari aurre egiteko eta jasangarritasuna sustatzeko helburu eta ekintza espezifikoak ezarri dira. Zehazki:

1. **Klima lehentasun estrategiko gisa**
2. **Finantzaketa jasangarria**
3. **Berrikuntza eta trantsizio justua bultzatzea**
4. **Biodibertsitatearen zerbitzuak eta naturaren babesa**

Programa

2024-05-30

17:45 - 18:00 Registro

18:00 - 19:15 “El papel del Banco Europeo de Inversiones en la transición hacia una economía sostenible”

Esther Badiola | Oficina de Cambio Climático en las Operaciones del Banco Europeo de Inversiones (BEI) - Asesora Principal

Eva Caballero kazetariak hizlariarekin elkarriketa izango du hitzaldia amaitutakoan / La periodista Eva Caballero mantendrá un diálogo con el ponente una vez finalizada la conferencia

Irakasleak



Esther Badiola

EIBko Eragiketen Klima Aldaketaren Bulegoko aholkulari nagusia

EIBko Eragiketen Klima Aldaketaren Bulegoko aholkulari nagusia Esther Badiola Europako Inbertsio Bankuaren (EIB) Eragiketen Klima Aldaketaren Bulegoko aholkulari nagusia da. 2001eko azaroan batu zen EIBra. 2013an, bankuaren klima-alaketaren lehen estrategia gidatu zuen (2015), eta, ondoren, 2018tik 2021era, EIBk Washingtongo bulegora bidali zuen, garapenerako beste banku multilateralekin eta Nazio Batuekin lan egiteko, ingurune global batean. EIBn sartu aurretik, Estherrek auditoretzan (Arthur Andersen), Analistas Financieros Internacionales (AFI) erakundean eta Espainiako eta Irlandako telekomunikazio erregulatzaileretan lan egin zuen. Esther ekonomialaria da, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan graduatua, eta Londresko Unibertsitateko masterra du Ingurumen Ekonomia Aplikatuan. Aldizka idazten du jasagarritasunari buruz, IPCCk klima-alaketa arintzeari buruz egindako azken txostenean parte hartu du, eta irakasle bisitaria ere izan da George Washington Unibertsitatean, SciencesPo Unibertsitatean edo AFI Eskolan (Madril).

Matrikula prezioak

IZEN EMATEA - AURREZ AURRE	2024-05-30 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

IZEN EMATEA - ONLINE ZUZENEAN	2024-05-30 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa